


Euskal AEko Merkatu-zerbitzuetako salmentak aurreko hiruhilekokoak baino % 19,1 handiagoak izan dira 2020ko hirugarren hiruhilekoan

2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Merkatu-zerbitzuetako salmentak % 15,8 jaitsi dira

Merkatuko beste zerbitzuak (aurrerantzean, Merkatu-zerbitzuak) epigrafean bildutako sektoreetan salmentak % 19,1 igo dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio finkoetan eta behin urtaro-eraginak kenduta, Eustaten datuen arabera. Igoera hori urteko bigarren hiruhilekoan erregistratutako jaitsiera (% 23,9) baino txikiagoa izan da.

2020ko hirugarren hiruhilekoan, eta aurreko urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, egutegiaren eraginak kendurik, Merkatu-zerbitzuen salmentek % 15,8 egin dute behera termino errealean. 2020ko lehenengo hiru hiruhilekoen metatuan, salmentek % 17,3ko jaitsiera izan dute.

Koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. Bestelako merkatu-zerbitzuak. (%)



Merkatu-zerbitzuen barruan, salmenta errealean urte arteko atzerakada orokorra da. Nabarmenezkoa da Ostalaritza-sektoreko salmenten beherakada, non % 35,5eko jaitsiera kalkulatzen baita. Ondoren, Administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarrien salmentak datoz, % 26,4ko beherakadarekin; Garraio eta biltegiatzearenak, % 6,8ko beherapenarekin; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoarenak, urte arteko -% 6,4ko aldakuntzarekin; eta, azkenik, Informazioaren eta komunikazioen sektorearenak, %

4,1eko beherapenarekin. Hori guztia, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean eta egutegiaren eraginak zuzendu ondoren.

2020ko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta urtaro-eraginik gabe, susperraldia orokorra izan da, baina alde askotakoa. Izan ere, hirugarren hiruhilekoan ostalaritzan salmentak % 82,4 igo dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta Garraio eta biltegiatzean % 24,5. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak % 9,7 hazi dira hiruhileko arteko terminoetan, Administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarriak % 8,2 eta, azkenik, Informazioaren eta komunikazioen adarra % 2,8.

Aurten, orain arte, salmenta metatuek beherakada handiagoa izan dute Ostalaritzan (-% 38,8ko aldakuntza), Administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarrietan (-% 21,3) eta Garraio eta biltegiatzean (-% 12,6). Jaitsiera neurrizkoagoa izaten ari da Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (-% 7,8) eta Informazioa eta komunikazioak adarrean (-% 3,5).

Euskal AEko zerbitzuen koituntura-indizea. Bestelako merkatuko-zerbitzuak.
Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. III/2020

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	-15,8	19,1	-17,3
Garraioa eta biltegiatzea	-6,8	24,5	-12,6
Ostalaritza	-35,5	82,4	-38,8
Informazioa eta komunikazioak	-4,1	2,8	-3,5
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-6,4	9,7	-7,8
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-26,4	8,2	-21,3
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba	-12,4	39,0	-16,4
Bizkaia	-15,4	12,4	-16,2
Gipuzkoa	-17,8	25,2	-19,8
ENPLEGUA	-3,8	1,6	-3,1

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koituntura-indizea

Lurraldeka, prezioen eta egutegiaren eragina kenduta, Araban urte arteko % 12,4ko jaitsiera izan da salmenta-indizean, Bizkaian % 15,4koa eta Gipuzkoan % 17,8koa.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, Araban salmentak % 39,0 gehitu dira, Gipuzkoan % 25,2 eta Bizkaian % 12,4. Aurten, orain arte, Merkatu-zerbitzuetan metatutako salmentak % 19,8 jaitsi dira Gipuzkoan, % 16,4 Araban eta, azkenik, % 16,2 Bizkaian.

Euskal AEko Merkatu-zerbitzuetan ari diren langile okupatuen indizea % 3,8 jaitsi da urte arteko aldian. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ordea, % 1,6ko igoera izan da.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko

Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Horiei esker, hirugarren hiruhilekoko indizea laginaren % **93,03ko estaldurarekin** kalkulatu da –laginaren informazioa urrian zehar jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62